



Balorezko proposamena

Gure ideia neskontzako taxi moduko bat sortzea da. Hau egitea erabaki dugu hainbat emakumeri galdetu egin genielako ea seguru sentitzen ziren gauez taxi batean eta gizon batekin gidatzen eta hurrengokoa esan ziguten: askok ezezkoa eman; beste batzuek, ordea, esperietzia latzak eduki zituztela gizon gidari batekin.



Orduan, neska bat gidari gisa jartzea erabaki dugu emakumeen lasaitasuna dela eta. Alokaturako ditugun automobilak elektrikoak izango dira ehuneko ehunean.

Gure marka irudiari dagokionez, autoak elektrikoak izatearen garrantzia islatu nahi dugu gure logoan letrak berde kolorearekin jartzen. More kolorea erabiliko dugu adierazteko feminismoaren alde gaudela eta batez ere gure zerbitzua feminista dela.



Status: Kooperatiba

Kooperatibismoaren abantaila nagusia da garapen-eredu bat dela, aukera berriak sortzea bilatzen duena, elkartasunaren eta berdintasunaren ikuspegitik, alde guztientzat; ez da irabazirik lortu nahi, baizik eta kide guztiei ekarpen sozial eta ekonomikoa egitea.